

Ardatz estrategikoa:	2. ardatza.- Herritarrekiko elkarrekintza	Proiektua:	2.4. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea	
Azpiproiektua:	2.4.1. Zerbitzu katalogoa osorik eta eguneratuta argitaratzea egoitza elektronikoan			
Deskripzio-laburpena:	Proiektu honen helburua Euskal Administrazioaren zerbitzu guztien informazio osatua eta eguneratua herritarren esku ipintzea da, eduki horietara sartzeko eta horiek erabili ahal izateko aldez aurreko betekizun gisa.			
Helburu orokorrak:		Helburu operatiboak:		
• Zerbitzu-eskaintza herritarrengana hurbiltzea modu zehatz, oso, eguneratu eta gardenean • Zerbitzu elektronikoen eskuragarritasuna eta erabilera sustatzea		• Prozedurak argitaratzeko aplikazioa martxan eta eguneratuta egotea 2014ko abendurako • Zerbitzuei buruzko informazio osoa 2014ko abendurako • Herritarren gogobetetasuna, 10etik 8koa		
Egikaritzea:				
• Prozedurak argitaratzeko aplikazioa erabat operatibo dago 2014tik, eta, etengabeko eboluzio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan, 2016an berriro diseinatu da aplikazioa, sinplifikatuz. Horren helburua da barne-kudeatzaileek informazioa errazago sartu ahal izatea, eta herritarrek, beren aldetik, informazioa errazago kontsultatu ahal izatea. • Txosten hau egiten ari garen une honetan, aplikazio berriarekin –beraz plantila berriarekin–, 1.800 fitxa baino gehiago argitaratu dira, eta horietatik 1.600 diruz lagun daitezkeen prozedurei lotuta daude (laguntzak). Era berean, 500 bat fitxa daude argitaratzeko zain; horietatik asko DACIMaren eta EJIEn lankidetzaz egin dira, eta sailek balidatzeko zain daude argitaratuak izateko.				
Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:
DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2016	Hasiera: 2014 Amaiera:	☐ Amaitua ☒ Aribidean ☐ Hasi gabe	☐ Positiboa ☒ Hala-nolakoa ☐ Negatiboa
Oharrak:				